



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko azaroaren 22a

111. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, gaueko argiteria ingurumenaren babesaren ikuspegitik antolatzeari buruzkoa, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra aurkeztua (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskarren irakaskuntza eta erabilera arautzekoa. Zuzenketak aurkezteko epea (12. or.).
- Foru Lege proposamena, familia ugarietarako buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (12. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da administrazioan software librearen erabilera hedatzeko plan bat abian jar dezan, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua (13. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Oinarrizko laguntza berrantolatzeko planean taxuturiko ildoak aplikatu dituzan, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua (14. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da garapenerako hezkuntzari buruzko ekintza eta proposamenak bultzatu dituzan, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua (16. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Andosillako Udalarekin negoziatioetan has-teko, kasino nagusia herritarrentzako zentro gisa zaharberritzeari begira, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua (17. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Foru Komunitateko ikur eta sinboloei buruzko informazioa emateko eta haiek indartzeko, ezagutzera emateko eta erabiltzeko plan bat egin dezan. Foru Araubide Batzordean izapidatzea (18. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, beste autonomia erkidegoek behi-aziendaren entzefalopatia esponjiformea dela-eta emandako laguntzekin izan duten strategiari buruzkoa, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina (19. or.).
- Galdera, Europako Batasunaren erabakietan Nafarroak duen parte hartzeari buruzkoa, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina (20. or.).
- Galdera, poliziaren arloko eskumenak hartzeari buruzkoa, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina (20. or.).
- Galdera, trafikoaren arloko eskumenak hartzeari buruzkoa, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina (21. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak Madrilen duen ordezkariak egindako lanari buruzkoa, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina (22. or.).
- Galdera, Informazioaren gizartea sustatzeko planean sartutako jarduketak betetzeari buruzkoa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina (22. or.).
- Galdera, modernizazio esparru berria abiarazteko laguntza teknikoa eta oinarrien garapena kontratatzeari buruzkoa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina (23. or.).
- Galdera, Tracasaren balizko pribatizazioa justifikatzen duten arrazoiei buruzkoa, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak egina (24. or.).
- Galdera, aurrekontuei buruzko Foru Legearen aurreproiektua Gizarte Kontseilu Ekonomikoan tramitatzeari buruzkoa, foru parlamentari Félix José Puyo Rebollo jaunak egina (25. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak, eta Parlamentuko informazioa:**

- Mahaiko Erabakia. Horren bidez Nafarroako Parlamentuaren domina ematen zaio Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren testua negoziatzeko batzordeetan parte hartu zutenei (27. or.).
- Erabakia, Nafarroako Parlamentuari buruzko liburu instituzionala inprimatu eta koadernatzeko lanak adjudikatzeko (28. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, gaueko argiteria ingurumenaren babesaren ikuspegitik antolatzeari buruzkoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko azaroaren 11n egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra gaueko argiteria ingurumenaren babesaren ikuspegitik antolatzeari buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1.- Gaueko argiteria ingurumenaren babesaren ikuspegitik antolatzeari buruzko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2.- Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2002ko azaroaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Gaueko argiteria ingurumenaren babesaren ikuspegitik antolatzeari buruzko Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

Milioika urtetan, Lurreko izaki bizidunak beren prozesu biologikoak bi ziklo astronomiko nagusiren arabera egokitzen joan dira: urtarokak ondoz ondo etortzea eta eguna-gaua alternantzia. Bi fenomeno horien pertzepzioa latitudearen arabera ezberdina denez, espezieak beren habitatean bi ziklo horien bereizitasunarekin egokitzen joan dira. Horietako edozeinen nahasmenduak ezagutzen ez ditugun ondorioak dauzkaten distortsioak

sortuko lituzke, baina segurantzia osoz espezie batzuk desagertu eta gainerakoetarako egokitze exijentzia berriak sortuko lirake.

Energiaren kontsumo arduratsuak herritarren hezkuntza zibikoaren ezinbesteko atala izan beharko luke, arrazoi ezberdinak direla medio. Horietako lehena: energia kontsumoaren egungo eredia funtsean baliabide natural ez-berriztagarriak (ikatz, petrolio edo uranioa) bihurtzean oinarritzen da; hori dela eta, haien xahutzeak erabilera-denbora laburtzen du eta herrialde behartuenei eta etorkizuneko belaunaldiei haietat gozatzeko aukera kentzen die. Bigarrena: energia bihurtzeko, garraiatzeko eta gero kontsumitzeko prozesuetan ingurumena larriki kutsatzen dituzten hondakinak sortzen dira (erradioaktibitatea, euri azidoa, itsasoen kutsadura, ke toxikoek eragindako kutsadura atmosferikoa...), eta oreka klimatikoa aldarazteko mehatxua dakarte (CO₂ isurtzeen ondoriozko negutegi efektua).

Kanpoko argiterietan energia elektrikoa gehiegikeriaz eta modu arduragabeen erabiltzea ingurumenerako eraso berri bat da, gaua aldarazteko mehatxua dakarrena, hartara bigarren ziklo kosmiko nagusian eraginez. Fenomeno horrek badu izenik: argi-kutsadura.

Gauetako iluminazio artifiziala hiri-eremu modernoetan –eta neurri txikiagoan landa eremuetan– bizitzeko ezinbesteko baldintza da, eta beharrezko ere suertatzen da jolas-, merkataritza- eta produkzio-jarduera ugaritan aritu ahal izateko. Gaur eguneko garapenak berekin ekarri du hiriko bizitzaren baldintzak eta kalitatea hobetzea, eta bizitza horrek alde asko gaueko orduetan gartzen dira gaur egun.

Hala eta guztiz ere, argiteriaren hazkunde hori lagungarri gertatu da argiteriaren balizko ondorio negatiboak agerian uzteko. Argi-instalazioen diseinu edo erabilera desegokiak kalte egiten dio bioaniztasunari eta ingurumenari –naturalari nahiz hirikoari– eta pertsonen ere, zuzenean edo zehar-

ka gaueko orduei dagozkien iluntasun baldintza naturalak, modu desordenatuan, aldarazten dituztelako.

Aldarazte horri argi-kutsadura esan izan zaio: bereziki hiri eremu handietan sortzen diren argi-soberakinek atmosferan barreiatzea da. Egungo kale-argiak eta argiteria publikoaren sare ia osoa, oro har, funtzionaltasunari begira baino estetikari begira daude diseinaturik.

Bestalde, gaueko argiztapen gehiegizkoa edo akastuna kutsadura modu bat da, zeruaren ikuspegi eragina duen neurrian, zerua paisaia naturalaren zati baita eta, horrenbestez, babestu beharrekoa, alde batetik herritar guztien ondare komuna delako eta bestetik haren azterketa zientifikoa bideratu beharra dagoelako. Hartara, astronomiaren alderdi profesionalean, fenomeno honen eragina izugarria izan da, eta zuzeneko meatxua da hiriguneetako inguruetan dauden behatokien errentagarritasun didaktikorako.

Gaueko argiztapenak, irizpide koherente eta arrazionalak betez gero, eragin zuzen eta berehalakoa dauka energia iturrien kontsumoan eta bidezko egiten du energia aurrezpen nabarmena izatea. Hori dela eta, kontuan hartu beharrekoa da baliabideen erabilera efizientea Nafarroak lortu beharreko garapen eramangarriaren oinarritzko printzipioetako bat dela, Nafarroako energia aurrezteari buruzko planean jaso bezala.

Halaber, gogoan eduki behar da Parlamentuak jada horri buruz hitz egin izan duela, hain zuzen ere 2002ko otsailaren 28ko erabakia onetsi zuean; haren bitartez, Gobernua premiatu zen "argiteria instalazio eta aparatuak arautzeko foru lege proiektu bat igor zezan", sor dezaketen argi-kutsaduraz denaz bezainbatean. Arauak ondoko helburuak izanen ditu: energia aurrezte, argia etxe-ingurunean sar dadin eragozte, ahal den guztian baldintza naturalak errespetatzea eta zeruaren ikuspegi kutsadura saihestea. Horretarako, argiteriaren baldintzak arautuko dira, eta zaugarritasunaren araberrako lurralde-eremuen sailkapen bat eta aqquadministrazio publikoen jarduketak ezarriko dira. Halaber, laguntzen eta zehapenen araubide bana ezarri beharko da.

Arrazoi horiek guztiek, eta ingurua babestu beharra dela-eta herritarrak gero eta kontzientziatuagoak egoteak, justifikatu egiten dute foru lege honen bitartez gaueko argiztapen desegokiak planteatzen dituen arazoei eta hartatik ondorioztatzen diren argi-kutsadurako moduei erantzutzeko bidea emanen diguten mekanismoak arautzeko beharra, alde batera utzi gabe gaueko argiztapena herritarren segurtasunerako, zirkulaziorako eta

jendea bizi deneko aldeetako merkataritza-, turismo eta jolas-jardueretarako funtsezko elementua dela. Betiere, gaueko argiteriaren arautze egokia lagungarri gertatuko da hiri eta herrietan herritarren bizi-kalitatea hobetzeko.

Espainiako Argiztapenaren Komiteak eta Energiaren Dibertsifikazio eta Aurrezpenarako Institutuak emandako gomendioei jarraituz, foru lege honek lurraldea zenbait eremutan banatzen du, onargarri gerta daitekeen argitasunaren ikuspuntutik bakoitzak daukan ezaugarri eta berezitasunen arabera, eta, alde batetik, onargarri gerta daitezkeen distira-intentsitateei eta argiteriaren ezartzeari dagozkionak eta, bestetik, urtaroen araubidea eta erabileren ordutegia arautzen ditu.

Foru legeak, halaber, bilatzen dituen helburuak betetzeko administrazio publikoek dauzkaten betebeharrak ezartzen ditu, dauden argiteriak agindu berrietara egokitzeko balizko eragiketarik laguntzeko behar diren laguntza ekonomikoak finantzatzen ditu, behar den zehapen araubidea arautzen du eta, azkenik, herritarrak argi-kutsadurak planteatzen dituen ingurumen arazoak direla-eta kontzientziatzeko kanpainak sustatzen ditu.

Horri dagokionez, foru lege honen aplikazioak lagungarri izan behar du, halaber, argiterietan energia efizientzia handiagoa lortzeko.

I. KAPITULUA **Xedapen orokorrak**

1. artikulua. Xedea.

Foru lege honen helburua da kanpoko eta barruko argiteria instalazio eta aparatuak arautzea, sor dezaketen argi-kutsadura dela eta. Nafarroako Foru Komunitatean dauden kanpoko argiteria instalazioek –publikoek zein pribatuek– bete behar dituzten baldintzak ezarri nahi dira, kontsumitzen duten energiaren erabilera efiziente eta arrazionalaren bitartez eta gaueko argi-distira murriztuz ingurumena babesteko; hori guztia, halere, ez da eragozpen izanen instalazio horiek behar diren bide-segurtasuna eta oinezkoen eta jabetzen segurtasuna bermatzeko.

2. artikulua. Helburuak.

Hona hemen foru lege honen helburuak:

a) Kanpoko argiterien efizientzia energetikoa sustatzea, energia aurreztuz, erabiltzaileen segurtasuna ezertan kaltetu gabe.

b) Gaueko orduetako baldintza naturalei ahal den guztian eustea, faunaren, floraren eta, oro har, ekosistemen onerako.

c) Etxeko ingurunean argia bidegabe sar dadin eragozte eta, betiere, haren enbarazu eta kalteak gutxitzea.

d) Argi-kutsadurak zeruaren ikuspegiari dauzkan ondorioei aurrea hartu eta haiek zuzentzea.

e) Kanpoko eta barruko argiteria instalazioetan material kutsagarrien erabilera gutxitzea.

3. artikulua. Aplikazio esparrua.

Foru lege hau Foru Komunitatearen eremuan aplikatuko da, instalazio berrietako kanpoko argiteriako proiektuetan, diseinuko txosten teknikoetan eta obretan, publikoetan nahiz pribatuetan, bai eta egun daudenak birmoldatu edo zabaltzeko proiektuetan ere.

4. artikulua. Definizioak

Foru lege honen ondorioetarako, ondokoak ulertuko dira:

a) Argi-kutsadura: gaueko argi iturri artifizialen argi-fluxuaren jaulkipena, luminariak instalatu diren eremuan aurreikusitako jarduerak egiteko baino intentsitate, norabide edo maila espektral handiagoa badute.

b) Zeruranzko difusioa: zerurantz hedatzen diren argi-fluxuen jaulkipenari dagokion argi-kutsadura mota da.

c) Itsutzea: ikuspegia zailtzen edo eragozten dituzten argi-fluxuen jaulkipenari dagokion argi-kutsadura mota da.

d) Argia bidegabe sartzea: aurreikusitako jarduerarako erabilgarriak diren eremua gainditzeko duten argi-fluxuen jaulkipena, beharrezkoak ez diren eremuetara eta traba edo kalte egin dezaketen eremuetara hedatzen direnak.

e) Gehiegizko kontsumoa: intentsitate edo banaketa espektral gehiegizko argi-fluxuen emisiotik ondorioztatzen den energia-kontsumo alferrekoa edo beharrik gabekoa.

f) Kanpoko argiteria:

eremu estalietatik kanpo dauden lur azalerak gaueko erabilerarako argiztatzeko aurreikusitako instalazioa, jabari publiko nahiz pribatuetan, instalazio egonkor edo noizbehinkakoekin egindakoa.

g) Barneko argiteria: estalitako eremuen barruan dauden lur azalerak argiztatzeko aurreikusitako instalazioa.

h) Distira: argi propio edo islatutakoaren fluxua, honelakoa izan daitekeena:

h1) Distira txikia: argi erreferentearen mailaz azpiko intentsitatea daukana.

h2) Distira ertaina: argi erreferentearen mailaren aldean intentsitate ertaina daukana.

h3) Distira handia: argi erreferentearen mailaz nabarmen goragoa daukana.

i) Argiaren erreferentzia maila: argi-fluxuen intentsitate maila, erregelamendu bidez determinatua, foru lege honen eta bera garatuko duten arauen aginduak betetzeari begira.

j) Instalaturiko goi-hemisferioaren fluxua: plano horizontalaz gainera argi-aparatu batek edo gorputz batek, eraikin batek edo elementu argitsuren batek irradiatutako fluxua.

k) Gaueko ordutegia: arauz ezarritako ordutik eguzkia ateratzen den arteko ordu-tartea.

l) Argiteriaren aldaketa: instalazioetan edo argi-aparatuetan aldaketak egitea, erregelamendu bidez ezartzen diren ondorio eta baldintzekin.

m) Luminaria: argi-iturriren bat daukan aparatua.

n) Energia aurrezpena: energia kontsumorik txikienarekin behar den argia lortzea.

o) Efizientzia energetikoa: luminaria baten aprobetxamendurik onena.

2. Foru lege honen ondorioetarako, eta argiteriari eman behar zaion erabilerari dagokionez, honakoak ulertu behar dira:

f) Bideetako kanpoko argiteria: ibilgailuak ibiltzeko lekuena.

b) Oinezkoentzako kanpoko argiteria: pertsonak ibiltzeko lekuena.

c) Bideetako eta oinezkoentzako kanpoko argiteria: ibilgailuak eta pertsonak ibiltzeko lekua.

f) Apaindurarako kanpoko argiteria: helburu estetikoekin argiztatutako lekuena.

f) Industrietarako kanpoko argiteria: jarduera industrialetarako lekuena.

f) Merkataritza eta publizitaterako kanpoko argiteria: merkataritza edo publizitate jardueretarako lekuena.

g) Kirol eta josteta jardueretarako kanpoko argiteria: kirol edo josteta jardueretarako lekuena.

h) Segurtasuneko kanpoko argiteria: zaindu eta kontrolatu beharreko lekuena.

i) Eraikinetako kanpoko argiteria: jabetza pribatuko finka batekoak izanda ere eraikinetatik kanpokoak diren lekuena.

i) Ekipamenduetarako kanpoko argiteria: ekipamendu publiko nahiz pribatukoak izanda ere, eraikinez kanpokoak diren lekuena.

5. artikulua. Aplikaziorako salbuespenak.

1. Ondokoak egonen dira foru lege honetan finkaturiko betebeharrak betetzetik salbuetsirik, erregelamendu bidez ezartzen diren kasuetan eta norainokoarekin:

a) Aireportuak, trenbide instalazioak.

b) Segurtasun indar eta gorputzen instalazioak eta instalazio militarrik.

c) Ibilgailu motordunak.

d) Oro har, herritarren segurtasuna bermatze-ko arauen bidez araturiko argiztapena duten azpiegiturak.

2. Hala eta guztiz ere, salbuespen kasuetan, Nafarroako Gobernuak horren ardura duten erakundeekin itunak sinatuko ditu foru lege honen helburuetatik ahal den eta gehien –arlotan horietako jarduerarekin bateragarriak direnak– lortzeko.

3. Foru lege honen aplikazio eremutik kanpo gelditzen da administrazio baimena edo kontrol administratiboko beste era batzuetako baimena duten jardueretako errekuntzek sorturiko argia, argitzeko helburua ez badute.

II. KAPITULUA
Argiteria arautzeko araubidea

6. artikulua. Zonifikazioa.

1. Foru lege hau aplikatzeko, lurraldea argikutsaduraren zaurgarritasunaren arabera eremutan banatuko da.

2. Lurraldearen eremuen arabera banaketa hori erregelamendu bidez ezarriko da, eta ondoko zonifikazioaren arabera izanen da:

a) E1 eremua: babes berezia behar duten lurralde esparruetako naturgune babestuen sarean sarturiko eremuak, dauzkaten ezaugarri naturalak direla-eta edo balio astronomiko berezia dutelako, haietan distira txikiena baizik ezin baita onartu.

b) E2 eremua: distira txikia baizik onartzen ez duten lurralde esparruetan sarturiko eremuak, oro har hirietako etxebizitza-eremuetatik edo industria eremuetatik kanpo daudenak.

c) E3 eremua: distira ertaina baizik onartzen ez duten lurralde esparruetan sarturiko eremuak, oro har hirietako etxebizitza-lekuetan.

d) E4 eremua: oro har, gaueko ordu-tarteak jarduera handia duten etxebizitza-lekuak eta merkataritza guneak biltzen dituzten hiri eremuak.

e) Erreferentzia guneak: balio astronomiko edo natural berezietatik hurbil dauden guneak; horietako bakoitzarentzat, araupetze berezia ezarriko da kokatuta dauden eremuaren arabera.

3. Udalek zonifikazio propioa ezarri ahal izanen dute beren udalerrian, betiere 2. idatz-zatiaren arabera onetsitako babes-maila gutxitu gabe, salbu eta justifikaturiko arrazoiak ematen badira, erregelamendu bidez araututakoaren arabera.

7. artikulua. Mugak eta debekuak.

1. Instalaturiko goi-hemisferioaren fluxua, 6. artikuluan indarrez ezarritako eremuei aplikatzeko, erregelamendu bidez arautuko da, 4.2 artikuluan zehazturiko erabilera guztietarako eta erregelamendu bidez zehazten den beste edozeinetarako.

2. 4.2 artikuluan zehazturiko berariazko erabileretako bakoitzarentzat, erregelamendu bidez ezarriko dira argi maila gehienekoak, nazioarteko gomendioak kontuan harturik, aipatu gomendioak aldatuz gero haietan ere behar den egokitzapena egiteko mekanismoekin.

3. Gaueko ordutegian funtzionatu behar duten argiteriak instalatzeko proiektuak haien beharra justifikatzeko txosten batekin batera aurkeztuko dira.

4. 2. idatz-zatiaren arabera ezarritako argi maila gehienekoak ere barruko argiteriari ere aplikatzen ahal zaizkio, baldin eta kanporako bidegabeko argi-sartzea gertatzen bada.

5. Ondokoak debekaturik daude:

a) Luminaria integral edo monokromatikoak, goi-hemisferioaren fluxuak haren % 25 gainditzen badu.

b) Ohiko proiektagailu edo proiektagailu laserren bitartez plano horizontaletik gora emititzen duten argi-iturriak, salbu eta interes historiko berezia duten elementuak argitzen dituztenean, erregelamendu bidez ezarritakoaren arabera.

c) Gaueko publizitateko aire-tresna eta -gailuak.

d) Eski pisten argiztapen iraunkorra.

e) Instalazioen argiztapena, 3. idatz-zatiak exijitzen duen zioen txostenik ez dagoenean.

8. artikulua. Argiztapen instalazio eta aparatuen ezaugarriak.

1. Argiztapen instalazio eta aparatuen argikutsadurari aurrea hartzeko eta energiaren

aurrezpena, erabilera egokia eta aprobetxamendua errazteko moduan diseinatu eta instalatu beharko dira, eta horretarako behar diren osagaiak izanen ditu.

2. Erregelamendu bidez argiztapen aparatuei aplikatzekoak zaizkien betebeharrak ezarriko dira, betiere 6. artikuluan ezarritako eremuen arabera, bidezkoa bada, eta 7. artikuluan ezarritako gehieneko mugekin, bereziki ondokoei dagokienez:

a) Luminarien okerdura eta norabidea, itxieraren ezaugarriak eta haietan pantailak jartzeko beharra, instalaturiko goi-hemisferioko fluxu gehienekoak eta itsutzeak eta argia bidegabe sartzeari saihesteko.

b) Erabili beharreko edo erabilera nagusiko lanpara motak.

c) Argi-fluxua ordutegi berezietan erregulatze-sistemak, bidezkoa bada.

3. 1 eta 2. idatz-zatietan xedatuaren arabera osagaien, diseinuaren, instalazioaren, horizontalekiko ezarpen angeluaren eta efizientzia energetikoaren aldetik ezarritako baldintzak betetzen dituzten kanpoko argiteriako aparatuek, argi-kutsadura saihesteko eta energia aurrezteko beren kualitatea bereizgarri homologatu baten bitartez kreditatu ahal izanen dute.

4. Behar diren mantentze programak eginen dira argiztapenerako instalazio eta aparatuen ezaugarriak kontserbatzeko.

5. Aurrezpen energetikoaren irizpideei jarraituz, kanpoko argiterietan lehentasuna eman behar zaie presio handiko sodio-lurrunezko (PHSL) lanparen eta presio txikiko sodio-lurrunezko (PTSL) lanparen erabilerari. Lanpara horiek merkurio-lurrunezko lanparen ordean erabili beharko dira argiteria publikoa berritzeko prozesuetan, eta instalaturiko potentzia murriztera jo behar da. Hartara, hondakin arriskutsu eta toxikoak sortzea saihestuko da, lanparen erabilera-bizitzari amaiera emandakoan.

9. artikulua. Zoletako ezaugarri fotometrikoak.

1. Ehundura, labainketarako erresistentzia, gainazalaren drainatzea eta abarren aldetik erakuntza-ezaugarriak, osaketa eta exekuzio-sistema egokiak diren guztietan, gomendagarria da trafiko-bideetako galtzadetan argiteria publikoko instalazioetarako islatze-ezaugarri eta propietate egokiak dituzten zolak erabiltzea.

2. Horrenbestez, bideragarria den guztietan, gomendagarria da trafiko-bideetako galtzadetan luminantzia-koefiziente ertaina edo ahal den eta

handiena duten zolak jartzea, betiere ispilu-faktore txikiarekin.

10. artikulua. Urtaroen araubidea eta argiteriaren erabileraren ordutegiak.

1. Kanpoko argiteria, bai jabetza publikoan bai jabetza pribatuan, itzalirik mantendu behar da gaueko ordutegian, bai merkataritza-eremuetan bai eremu industrialetan, etxebizitza-eremuetan edo landa eremuetan, salbu ondoko kasuetan:

a) Segurtasun arrazoiengatik.

b) Kaleak, bideak eta pasabideak argiztatzeko, eta, horretarako erabiltzen diren bitartean, ekipamendu eta aparkaleku eremuak argiztatzeko.

c) Merkataritza, industria, nekazaritza, kirol edo josteta erabileretarako, jarduerak dirauen bitartean.

d) Justifikaturiko arrazoiengatik; erregelamendua bidez zehaztu beharko dira horiek, eta 7.3 artikulua exijitzen duen txostenean zehaztuta agertu beharko dute.

2. Gauetz kanpoan egiten diren ekitaldi berezi, jai, feria, kirol edo kultur jardueretarako, udalek argiteriaren araubide propioa erregulatu beharko dute; araubide horrek bateragarri egin beharko ditu argi-kutsaduraren prebentzioa eta energiaren aurreztea eta gertakarietatik ondorioztaturiko beharrak.

3. Urtaroen irizpide orokorrak eta kanpoko argiteria erabiltzeko ordutegia erregelamendua bidez arautu beharko dira. Arautzeak aintzat hartu behar ditu 1 eta 2. idatz-zatietan aipatzen diren berezitasunak eta gaueko ordutegian interes kultural, historiko edo turistiko berezia daukaten monumentu eta bestelako elementuen argiztapen beharrari aplikagarri zaizkion baldintzak finkatu beharko ditu.

4. Artikulu honetan ezarritakoa aplikagarri izanen zaie, halaber, barneko argiteriei, jabetza publikokoei nahiz jabetza pribatukoei, baldin eta argia kanpora bidegabe ateratzen bada.

III. KAPITULUA

Administrazio publikoen jarduerak

11. artikulua. Administrazio publikoen betebeharrak.

Administrazio publikoek, beren eskumenen arloan, ondokoa bete eta betearaziko dute:

a) Argiteriek argia ahal den eta modu eraginkor eta efizientenean zabaltzea eta ahal den argi kopuru txikiena erabiltzea argiteria irizpideak betetzeko.

b) Erabiltzen diren luminariak itxiak edo pantailadunak izanen dira, 7 eta 8. artikuluan ezarritakoaren arabera.

c) Instalatzen diren kanpoko argiteriek ahal den guztietan argi-kutsadura saihesteko eta energia aurrezteko beren kalitatea kreditatua izanen dute, 8.3 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

d) Argiterien osagaiak argiztaturiko eremuaren erabileren ezaugarrietara egokituko zaizkie, eta ahal den guztietan uhin luzeko luzerako espektrorik ikusgarriaren eremuan emitituko dute.

e) Argiteriak behar denean baizik ez dira elkarrekin denboragailuen bitartez konektaturik egonen, bidezkoa bada.

f) Argiteriak itzalirik egonen dira gaueko ordu-tegian, beharrezkoak ez direnean.

g) Argiztapenerako instalazio eta aparatuetan behar den mantentze-lana eginen da, haien ezaugarriak kontserbatzeko.

12. artikulua. Administrazioaren esku-hartzearen araubidea.

1. Kanpoko argiteriaren ezaugarriak, foru lege honek eta hura garatzen duten arauak xedatuari egokituak, obretarako lizentziaren eskariarekin aurkeztu beharreko eranskinetako proiektu teknikoetan jaso beharko dira, eta nahitaezkoa izanen da lizentzia eman baino lehen Ingurumen Departamentuak horri buruzko txostena ematea.

2. 1. idatz-zatiak ezarritakoa barneko argiteriei ere izanen zaie aplikatzekoa, baldin eta kanpo aldera bidegabe ateratzen badira.

13. artikulua. Kontratazio administratiborako irizpideak.

1. Administrazio publikoek obra, zerbitzu eta horniduren klausula administratiboetako pleguetan kanpoko argiteriak nahitaez bete beharreko baldintzak jasoko dituzte, argi-kutsadurari aurrea hartu eta hura zuzentzeko foru lege honetan eta hura garatzeko arauetan ezarritako irizpideei egokitzeko.

2. 8.3. artikulua argi-aparatuarako aipatzen dituen bereizgarri homologatuek kreditatzen dute kontratazio administratiboari begira 1. idatz-zatian finkaturiko betebeharrak betetzen dituztela.

3. Gaueko ordu-tegian argiztapena behar duten eraikin, instalazio eta etxebizitzek beharrian hori justifikatzen duen txosten bat aurkeztu behar diote administrazio publiko eskudunari. Betiere, argiteria proiektua gutxienez ere argi-kutsadurari aurrea hartzeko irizpideei ahal den guztian egokitu beharko zaie.

14. artikulua. Funts publikoek finantzaturiko eraikinak.

Funts publikoek finantzaturiko eraikin, instalazio eta etxebizitzetako kanpoko argiteriako proiektuak nahitaez foru lege honek argi-kutsadurari buruz ezarritako prebentzio irizpideei egokituko zaizkie.

IV. KAPITULUA Araubide ekonomikoa

15. artikulua. Funts ekonomikoa.

1. Ingurumena argi-kutsaduratik babesteko funtsa sortzen da; ondoko baliabideak izanen ditu:

a) Nafarroako administrazio publikoek foru lege hau aplikatzeko ezarritako zehapenetatik heldu diren dirusarreraren kopurua.

b) Partikularrek, enpresek eta erakunde publiko edo pribatuek eta administrazio publikoek emaniko diru-ekarpen eta laguntzak.

c) Foru lege honen helburuak beteko direla bermatzeko Foru Komunitatearen aurrekontuetan behar diren ekarpenak.

2. 1. idatz-zatian sorturiko funtsaren bilketa foru lege honen bitartez eta bera garatzen duten arauen bitartez ezarritako neurrien erabilerarako laguntzei eta dirulaguntzei atxikitzen zaie.

16. artikulua. Laguntzen araubidea.

1. Foru lege honen preskripzioetatik kanpo dauden kanpoko argiterien egokitzea sustatzeko laguntzen lerro berariazkoak ezarriko dira.

2. 1. idatz-zatian aipaturiko laguntzak emateko lehenetsuneko irizpidea izanen da E1 eremu bat edo erreferentzia gunek bat izatea.

3. 1. idatz-zatiak aipatzen dituen laguntzak jasotzeko egiten diren eskariekin batera, instalazioaren eta dagokion aurrekontuaren proiektu teknikoa aurkeztu beharko dira.

V. KAPITULUA Zehapen araubidea eta ikuskatzeko eta kontrolatzeko ahalmena

17. artikulua. Zehatzeko moduko arau-haustekak.

Arau-hauste administratiboa dira foru lege honetan ezarritako betebeharrak aurka egiten dituen ekintza eta omisioak, 18. artikuluan ezarritako sailkapenaren eta graduazioaren arabera.

18. artikulua. Saikapena.

1. Ondoko ekintza eta omisioak arau-haustek dira:

a) Bi ordu bitarte, argiteriaren erabilerari buruzko ordutegi-araubidea urratzea.

b) Instalaturik dagoen goi-hemisferioaren fluxu baimendua % 20 bitarte gainditzea.

c) Ekintzaz edo omisioz foru lege honetako edo bera garatuko duten arauetako determinazioak urratzea, arau-hauste larri edo oso larriak ez diren bitartean.

d) Luminaria edo argi-iturriak instalatzea 7.6. artikuluko a) eta b) letretan ezarritakoaren aurka.

2. Ondoko ekintza eta omisioak arau-hauste larriak dira:

a) Bi ordu baino gehiagoz argiteriaren erabilerari buruzko ordutegi-araubidea urratzea.

b) Instalaturik dagoen goi-hemisferioaren fluxu baimendua % 20 baino gehiago gainditzea.

c) Foru lege honetan eta hura garatzeko arauetan ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten argiztapen-aparatuak instalatzea.

d) Dagoen argiteria aldatzea, haren intentsitatea, espektroa edo instalaturiko goi-hemisferioaren fluxua aldaraziz, eta, horrela, foru lege honetan edo hura garatzeko arauetan ezarritako baldintzak urratzea.

e) E1 eremuaren barruan edo erreferentzia gune batean arau-hauste arin bat egitea.

f) Administrazioaren kontrol eta ikuskapen jarduera oztopatzea.

g) Bi arau-hauste arin edo gehiago egitea.

3. Ondoko ekintza eta omisioak arau-hauste oso larriak dira:

a) Arau-hauste larri bezala saikaturiko bat egitea, baldin eta inguruneari kalte handia egiten badio.

e) E1 eremuaren barruan edo erreferentzia gune batean arau-hauste larri bat egitea.

c) Bi arau-hauste larri edo gehiago egitea.

19. artikulua. Erantzukizuna.

Foru lege honetako arau-hausteen erantzule izanen dira arau-haustean parte hartu duten pertsona fisiko eta juridikoak.

20. artikulua. Zehapen prozedura.

Foru lege honetan finkaturiko zehapenak ezartzeko aplikatu beharreko administrazio prozedura zehapen prozedurari buruzko arau indardunek ezarritakoa izanen da.

21. artikulua. Zehapenen zenbatekoa.

1. Arau-hauste arinek 25.000 pezeta (150,253) euro eta 100.000 (601,012) pezeta bitarteko isuna izanen dute.

2. Arau-hauste larriek 100.001 pezeta (601,018 euro) eta 500.000 pezeta (3.005,060) bitarteko isuna izanen dute.

3. Arau-hauste oso larriek 500.001 pezeta (3.005,067 euro) eta 5.000.000 pezeta (30.050,605) bitarteko isuna izanen dute.

22. artikulua. Zehapenen gradazioa.

Zehapenak ondoko irizpideen arabera mailakatuko dira:

a) Arau-hauslearen intenzionalitatea.

b) Autore gisa ez baizik eta beste titulu batez gertakarian izaniko parte hartzearen maila.

c) Berrerortzea, baldin eta ebazpen irmoz deklaratu bada urtebeteko epean izaera bereko arau-hauste bat baino gehiago egin dela.

23. artikulua. Kautelazko neurriak.

1. Baldin eta antzematen bada foru lege honetan ezarritakoaren aurkako jarduerarik dagoela, administrazio eskudunak interesdunari errekerimendua eginen dio, alde zuzenetik entzunaldia emanda, hura zuzen dezan, eta horretarako epe bat ezarri beharko dio.

2. 1. idatz-zatian aipatzen den errekerimenduari erantzunik eman ezean, administrazio eskudunak, zioak aipatzen dituen ebazpen batez, interesdunari entzunaldia eman ondoren, behar diren neurriak hartzea eta, kasua bada, arau-hauslearen argiteria prezintatzea erabaki ahal izanen du.

3. Artikulu honetan determinaturiko kautelazko neurriak zehapen prozedurari hasiera emateaz batera hartu ahal izanen dira, edo bestela tramitazioaren beste uneren batean, eta ezin izanen dira hiru hilabete baino gehiago geroratu.

24. artikulua. Isun hertsatzaileak eta kalteak konpontzea.

1. Gehienez ere 100.000 pezetako (601,012 euro) isun hertsatzaileak ezarri ahal izanen dira, ondoz ondoko hiru gehienez ere, kautelazko neurrietatik edo eman diren zehapen ebazpenetatik

ondorioztatzen diren betebeharrak betetzera premiatzeko.

2. Baldin eta foru lege honetako arau-hausteren batek ingurunearen bioaniztasunari kalte egiten badio, erantzuleak hari konponbidea eman beharko dio, eta egoera, ahal den guztian, jatorrizkora, aldarazpena gertatu aurrekora, itzuli beharko du. Konponketa ezinezkoa bada, arau-haustearen erantzuleak kalte-galerengatik kate-ordainak pagatu beharko ditu.

3. Isun hertsatzaileak ezartzea eta kalteari konponbidea emateko edo sortutako kalte-galerengatik kalte-ordainak pagatzeko exijentzia bateragarri izanen dira kasuan kasuko zehapenak ezartzearekin.

25. artikulua. Zehatzeko ahalmena eta organo eskudunak.

Foru lege honetan sailkaturiko arau-hausteetarako zehapen ahalmena Nafarroako Foru Komunitateko administrazioarena eta toki entitateena da.

2. Foru lege honetan finkaturiko zehapenak ezartzeko organo eskudunak erregelamendu bidez zehaztuko dira.

26. artikulua. Ikuskapen eta kontrol ahalmena.

1. Argi-kutsadura sor dezaketen argiteriak ikuskatu eta kontrolatzeko ahalmena Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari dagokio, eta kasuan kasuko administrazioaren –berari aitortzen baitzaio agintaritzaz-erbitzuko langile kreditatuek beteko dute; hori, dena den, ez da oztopoa izanen hirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoa betetzeko.

2. 1. idatz-zatiak aipatzen dituen langile kreditatuek eginiko ikuskapen aktan egiaztaturiko egitateak froga-balioa izanen dute; hori, dena den, ez da oztopoa izanen interesdunek ere frogak aurkeztu ahal izateko.

3. Ikuskapenaren menpe dauden entitate edo pertsonak ahal den guztian erraztu beharko dute ikuskapen eta kontrol lanen garapena.

Xedapen gehigarriak

Lehena. Foru lege hau indarrean sartzen denean lehendik dauden kanpoko argiteriek beren baldintza teknikoei eutsi ahal izanen diete, lehen xedapen iragankorrean ezarritako moduan, baina foru lege honetan eta hura garatzeko arauetan ordutegi-erabileretarako zehazten den araubideari egokitu beharko zaizkio.

Bigarrena. Foru lege hau indarrean sartu ondoren kanpoko argiterian aldaketa garrantzitsu-

ren bat egiten bada intentsitatean, espektroan edo instalaturiko goi-hemisferioaren fluxuan eragina duenik, foru lege honen eta hura garatzeko arauen preskripzioei egokitu beharko da.

Hirugarrena. Kanpoko argiteriak ikuskatu eta kontrolatzeko jarduketak, foru lege hau betetzeari dagokionez, entitate laguntzaileek eginen dituzte, eta horretarako behar den baimena eduki beharko dute, eta beren funtzioetan aritzeko behar diren giza baliabide eta baliabide materialak ere eduki beharko dituzte.

Laugarrena. Udalek eskualdeko kontseiluen eskuetan utzi ahal izanen dute udalerraren zonifikazioa, hain zuzen ere 6.3 artikulua arabera baimenduta dutena, toki araubideari buruzko arauak ezarritako moduan.

Bosgarrena. Foru lege honen erregelamendugarapenak kontuan hartu beharko ditu, foru legeak ezarritako baldintza eta printzipioekin bat, giza jarduerak eta argiteriaren instalazioek argitasun naturalean sorturiko alterazioak, era askotako argi-kutsadurak ekar ditzaketenak.

Xedapen iragankorrak

Lehena. Foru lege hau indarrean sartzen denean ezarrita dauden kanpoko argiteriak foru lege honetan eta hura garatzeko arauetan ezarritakoei egokitu beharko zaizkie erregelamendu bidez finkaturiko epeetan; epe horiek sekula ezin izanen dira izan zortzi urte baino luzeagoak, indarrean sartzen direnetik aurrera kontatzen hasita, eta, betiere, ondoko irizpideei jarraituz ezarri beharko dira.

a) Argiteriaren erabilerak.

b) Argiteria kokatuta dagoen eremuaren sailkapena.

c) Argiteriak ingurumenean eta herritarrengan sortzen dituen kalteak.

d) Aurrera eraman behar diren erreformen zenbaterainokoa.

e) Argiteriaren eraginkortasun energetikoa.

f) Egokitzearen kostu ekonomikoak

Bigarrena. Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuak, 16. artikuluan arauturiko laguntzen araubidearen eta bidezko diren beste aurrekontu-mekanismoen bitartez, udalekin batera arituko dira lanean udalerrietako argiteria publikoak foru lege honetan ezarritakoei egokitzeko.

Azken xedapenak

Lehena. Ingurumen Departamentuak herritarrei zuzendutako zabalkunde eta kontzientziazio kanpainak sustatuko ditu argi-kutsadurak sortzen dituen arazoan aldean.

Bigarrena. Lankidetzaren printzipioari jarraituz, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta toki administrazioaren arteko lankidetzaren hitzarmenak sustatuko dira, bai eta, beharrezkoa bada, Estatuko administrazio orokorrarekin ere, foru lege honek arautzen dituen neurriak sustatu eta ezartzeko.

Hirugarrena. Foru lege honek indarra hartu eta bi hilabeteko epean, argi-kutsadurari aurrea hartu eta bera zuzentzeko batzorde bat eratuko da, ukituriko sektore sozial eta administratibo guztien parte hartzearekin; haren xedea foru lege honen aplikazioa bultzatu eta sustatzea izanen da, bai eta esleia dakioken bestelakorik ere.

2. Foru lege honen erregelamendu-garapena 1. idatz-zatiak aipatzen duen batzordea eratu eta sei hilabeteko epean egingen da.

Laugarrena. Ahalmena ematen zaio Gobernuari dekretu bidez foru lege honetan finkaturiko isunak gaurkotzeko, kontsumorako prezioen indizearen aldaketei egokitzeko.

Bosgarrena. Gaitasuna ematen zaio Gobernuari foru lege hau garatu eta aplikatzeko, eta Ingurumen kontseilariari azken xedapenetako hirugarrenean argi-kutsadurari aurrea hartu eta zuzentzeko aipatzen den batzordea arautzeko.

Seigarrena. Foru lege honen erregelamendu-garapena egiteko azken xedapenak ezartzen duen epean, departamentu eskudunak 8.3. artikuluan aipatzen den bereizgarri homologatua emateko behar diren baldintzak ezarriko dira.

Zazpigarrena. Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hiru hilabeteko epean.

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskararen irakaskuntza eta erabilera arautzekoa

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Biltzarrak, 2002ko azaroaren 7an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskararen irakaskuntza eta erabilera arautzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztu eta 2002ko irailaren 30eko 92. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskararen irakaskun-

tza eta erabilera arautzeko Foru Lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz tramitatzea.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Hezkuntza eta Kultura Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea irekiko da, 2002ko abenduaren 16ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126 eta 145. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2002ko azaroaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, familia ugariei buruzkoa

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko azaroaren 11n egindako bilkuran, ondoko Erabakia hartu zuen, besteak beste:

1.- Familia ugariei buruzko Foru Lege proposamenari zuzenketak aurkezteko epea **2002ko abenduaren 23ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru lege proposamena 2002ko

ekainaren 23ko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2002ko azaroaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da administrazioan software librearen erabilera hedatzeko plan bat abian jar dezan

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da administrazioan software librearen erabilera hedatzeko plan bat abian jar dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko azaroaren 11n egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko azaroaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Nafarroako Foru Administrazioaren esparruan software librearen erabilera hedatzeko plan bat abiaraztekoa.

Proposamenaren azalpena

Hirurogeita hamarrek hamarkadaren bukaeratik aurrera, informatika pertsonalaren bilakaera uztarturik egon da, batetik, sistema eragileak eta aplikazioak sortu dituzten enpresa batzuen irabazi-asmoko ekoizpen profesionalarekin eta, bestetik, gizateriaren interesean eta irabazi-asmorik gabe zenbait aurrerapen erdietsi dituzten erabiltzaile-komunitateekin.

1984an Richard Stallmanek GNU Proiektua (GNU's Not Unix) sortu zuen. Haren helburua zen sistema eragile bat eta zenbait aplikazio sortzea

eta erabiltzaileari askatasuna ematea hura kopia-tu, aldatu eta birbanatzeko. Horren kariaz, besteak beste, Linus Torvaldsek Linux eratu zuen, hedapenik handiena lortu duen sistema eragile librea.

Gaur egun, software libreko lizentzien babesean garaturiko sistema eta aplikazio multzoa izugarria da, eta egunez egun hazten doa.

Software librearen abantailak dira, besteak beste, garatzaile-komunitate itzela izaten duela, akatsen bila aplikazioak aztertzen dituzten erabiltzaileen komunitate halaber itzela dagoela, garapeneko hutsegiteen berri emateko eta haien zatitako soluzioak aurkitzeko gardentasun handiagoa dagoela, kostua askoz ere txikiagoa dela eta, jakina, irekitasun teknologikoz jokatzeko dela, zeinak bermatzen baitu ez dela enpresa zehatz batekin bititza guztirako loturarik izanen; hori dela-eta, softwarea garatu eta ezartzeari dagokionez lehia-kortasuna sustatzen du.

Hala eta guztiz ere, oro har, mundu zabalean barrena, administrazio publikoak izan ohi dira korporazio handien bezero nagusiak. Eta, begi-bistako arrazoiak direla-eta, korporazio horiek monopolioa izaten dute jomuga. Kontraesan gisa agertzen da hain zuzen ere administrazio publikoa izatea soluzio pribatu eta ez-independenteetan sinesten duena, noiz eta aukera duenean, kostuak murriztu ez ezik, esparru publikoetan (unibertsitateak, berrikuntza-zentroak, transferentzia teknologikoko bulegoak eta abar) izandako garapen asko aprobetxatzeko ere.

Ekimen asko agertzen hasi dira administrazioetan software librearen erabilera sustatzeko. Horrela, Mexiko D.F.ko gobernuak iragarri du Linuxen oinarrituriko software librea ezartzeko asmoa duela (http://www.reforma.com/ciudad_de_mexico/articulo/078598).

Pixkanaka, software librea Amerikako beste herri batzuetan ari da ezartzen; adibidez, Peru, Argentina eta Brasilen. Xede dute Estatu Batuekiko daukaten mendetasun teknologikoa murriztea. Geografikoki hurbilago, Extremadurako Juntak Linex proiektua abiarazi du (<http://www.linex.org>), eta horrela, Linuxeko bere banaketa propioa sortu du, administrazio horren beharrezanetara egokitu. Europako Batasuna ere tinko ari da software librearen garapena eta erabilera sustatzen.

Argudio horiek guztiek balio berbera daukate gure lurraldean, Nafarroako Foru Komunitatean; horregatik, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hiru hilabeteko epean abian jar

dezan Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren esparruan software librearen erabilera hedatzeko plan bat.

- Plan horrek pixkanaka heldu beharko dio gaur egun erabilitako software jabetuna foru administrazioeko sistema guztietan software librea-ekin (open source) ordeztzeko eginkizunari, bai zerbitzarietan (datu-baseak, web, posta eta abar) bai lan-guneetan, hala foru administrazioaren barne inguruneetan nola kanporagoko inguruneetan (liburutegi publikoen sarea edo ikastetxeak kasu).

Iruñean, 2002ko azaroaren 5ean

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Oinarrizko laguntza berrantolatzeko planean taxuturiko ildoak aplikatuz

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Oinarrizko laguntza berrantolatzeko planean taxuturiko ildoak aplikatuz".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko azaroaren 11n egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko azaroaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztánek, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Nafarroako Foru Komunitateko etxez etxe laguntzari buruzkoa, osoko bilkuran eztabaidatua izan dadin.

Zioen azalpena

Berriki, Nafarroako Parlamentuko Gizarte Gaietako Batzordean, aukera izan dugu gure Foru Komunitateko etxez etxe laguntzaren gaur egungo egoera ezagutzeko, Axola elkartearen eta famili langileen elkartearen eskutik, bai eta horri buruz haiek egindako azterketa eta iritsitako ondorioak ere. Iruzkin eta kritika horiek bat datoz Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak zerbitzu hori emateko moduari buruz Parlamentuko Talde honek eta Nafarroako gizartearen zati handi batek duen iritzi negatiboarekin.

Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuari buruz Plan gerontologikoak eginiko proposamenak eta plan horren berrikuspena ez dira bete, eta Gobernu Kontseiluak 2001ean onetsiriko Oinarrizko laguntzaren berrantolamendua ere ez da betetzen ari. Une honetan, dagoen asmoa da Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua dirulaguntzetan eraldatzea eta zerbitzu hori etxe eginkizunetara murriztea; horrela, urruntzen ari da bere printzipio eta helburuetatik, alegia, euren kasa moldatzeko arazoak dauzkaten pertsonekin lan egitetik.

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren jokabide berri horrek ez ditu NUPeko Departamentuak eta zenbait profesionalak taxuturiko irizpideak ere jarraitzen. Jokabide horrek ondorio gisa ekar ditzake, besteak beste, etxez etxe laguntza identifikatzea "etxe zerbitzuari" dagoz-

kion eginkizunekin, eta haren eginkizun integral eta integratzailea desagertzea; emakumeei, batez ere emakume zaharrei, zuzenduriko laguntzarekin gainkargatzea; zerbitzuaren kalitatean efizientzia hondoratzea, zeren eta, kasu askotan, laguntza horiek ez baitute erabiltzailearen bizi-kalitatea hobetzea eragiten; emakume askoren lan-prekarietatea erraztea; udaletako edo mankomunitateetako etxez etxeko laguntzako zerbitzuen itotze finantzarioa; eta famili langileak profesional gisa gutxietsiak izatea. Ondorio horiez gain, zerbitzuaren pribatizazioa ere ekar dezake.

Gainera, lanbide-esperientziak agerian utzi du ezen, kasu askotan, laguntza horiek emateak ez duela konpondu zerbitzu hori erabiltzen duten pertsonen behar duten laguntzaren arazoa, zeren eta laguntza horien hartzaila familiak izan baitira, eta laguntzak ez dituzte erabili izan zerbitzua kontratatzeke. Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak ez du inolako kontrol eta jarraipenik egiten, eta bestetik Administrazioaren erantzukizunik ez dago, erantzukizun hori familiei pasatzen baitie.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak, etxez etxeko laguntzari eta Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren jardueri dagokienez, Nafarroako Gobernua honako hauetara premiatzen du:

1. Zorrozki aplikatzera eta Oinarrizko laguntza berrantolatzeke planean taxaturiko ildoek jarraikiz, zeinekin ados baitaude udal gizarte-zerbitzuetako profesional ugari, halako moldez non berreskuratu eginen baita Etxez Etxeko Laguntzako Zerbitzuak daukan benetako esanahia, eta, xede horrekin, oinarrizko laguntzaren berrantolamenduak bere osotasunean daukan eraginaren azterketa ekonomikoa egitera.

2. Iruñeko iparraldean eta Lizarran plan horri buruzko esperientzia pilotuak abiaraztera, zeresana daukaten profesionalen iritzia eta parte-hartzea izanik, bai eta zerbitzuei berrantolamendu horri ekin ahal izateko bitartekoak helarazi ahal izateko

behar adinako kontusailak bideratuz, Gizarte Zerbitzuen sare publikoaren barnean.

3. Gizarte Ongizate eta Osasun Departamentuak koordinatuz, besteren laguntza behar duten pertsonentzako laguntza hobetzeko, plan sozio-sanitarioa garatzeko aurrekontuan behar beste diru jarritz, eta plan hori garatzera, zeresana daukaten profesional eta elkarten iritzia aintzat harturik.

4. Udaleko gizarte-zerbitzuetarakoak diren kontusailak handitzera, udalek pertsona horiei lagundu ahal izateko dituzten beharizanak aseztatu, bitarteko eta langile gehiagorako hornituz. Halaber, udalak finantzatzeko formula berriak aztertzea, haien gizarte-zerbitzuek garaturiko programei egonkortasuna emateko. Era berean, gizarte-zerbitzuetako profesionalen lankidetzan eta adosturik, erabiltzaileentzako laguntza balioesteko ratio eta irizpideak ezartzea programa eta profesional bakoitzeko, emandako laguntzaren kalitatean eragin positiboa izan dezaten.

5. Etxez Etxeko Laguntzako Zerbitzuen tasak homogeneizatzeari begira toki entitateen arteko adostasuna bultzatzea.

6. Famili langile izateko unibertsitate-titulazioa ezartzeari eta gaur egun jarduera horretan diharduten profesional guztien balizko homologazioari buruzko hausnarketa egitea.

7. Etxez etxeko laguntzarako kontusailak bereiztera Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak ezartzen dituen bestelako gizarte-prestazio batzuetatik.

8. Besteren laguntza behar dutenei buruzko lege bat egiteari buruzko hausnarketa egitea. Lege horrek ezarriko ditu gure Foru Komunitatean besteren laguntza behar duten pertsonen daukaten eskubideak zerbitzu eta prestazioak esleitzen diezazkieten, gizarte-zerbitzuetako profesionalen lankidetzaren delako medio.

Iruñean, 2002ko azaroaren 4an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da garapenerako hezkuntzari buruzko ekintza eta proposamenak bultzatzen

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da garapenerako hezkuntzari buruzko ekintza eta proposamenak bultzatzen”.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko azaroaren 11n egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Gizarte Gaietako Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko azaroaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, garapenerako hezkuntzari buruzkoa, Gizarte Gaietako batzordean eztabaidatua izan dadin.

Zioen azalpena

Azken bosturtekoetan ikusten ari gara mundu osoan badagoela aberastasuna bereizkeriaz banatzearen aldeko ikusmoldearen joera bat, globalizazio ekonomikoko prozesu bidegabe batek indartua, globalizazioa ez baita modu berean gauzatzen solidaritateari, justiziarri eta eskubide sozialei dagokienez.

Joera hori ikusirik, esparru honetan lanean diharduten erakundeek azpimarratzen dute gure erkidegoko arlo guztietan garapenerako hezkuntzari bultzada eman beharra dagoela, eta bereziki eskola-haurren artean, horiexek izanen baitira biharko gizon-emakumeak, haurtzarotik gizarte-aldaketa baten beharra ikusteko heziak izan behar dutenak.

Europako Batasunak, garapenerako hezkuntzari eta Europako iritzi publikoa garapenerako lankidetzaren alde sentsibilizatzeari buruz Kontseiluak eman zuen 13.573/01 Ebazpenean, gara-

penerako hezkuntzarako eta horri loturiko komunikazio-politikarako laguntza handiagoa bideratzea xedatzen du, eta Europako Batzordeari nahiz kide diren estatuei bihotz ematen die arlo horretako ekimenei babes ematen segi dezaten.

Garapenerako hezkuntzak –ez dauka esanahi bakarra– balio behar du bideratze-lana egiteko konpromiso eta ekintzara, munduan zehar aberastasun eta boterearen banaketan dauden ezberdintasunez jabetzera, egoera horren zergatien eta ondorioen azterketara bai eta egitura bidezkoagoen eraikuntzan herritarrek duten zereginaren azterketara. Halaber, gizabanakoaren, erkidegoaren, herriaren eta nazioartean esparruan giza garapen jasangarriaren alde jokatzeko ere balio behar du.

Egoera global berrietara egokitu beharraren ikuspegitik, balio jakin batzuetan hezteak duen garrantziaren ikuspegitik eta biharko herritarrek motibatzea beharrezkoa izatearen uste osotik abiatuta, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak garapenerako hezkuntzarekiko bere konpromisoa agertzen du, eta konpromisoa hartzen du bere ekintzetan garapenerako hezkuntzari bultzada emateko estrategiak abiarazteko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hezkuntzaren arloan garapenerako hezkuntzari buruzko ekintza eta proposamenei bultzada eman diezaien, garapenerako hezkuntza gai zeharkatzaile gisa txerta dezan hezkuntzako mailetan, eta garapenerako lankidetzaren garrantziari buruz hezkuntza publikoa sentsibilizatu eta informa dezan.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Aurrekontu Orokorretan garapenerako hezkuntzarako kontusailak sar ditzan, horretarako berriazko deialdi bat antolatuz garapenerako laguntza ofizialaren barnean, garapenerako gobernu kanpoko erakundeek biharko egunerako hain garrantzitsua den eginkizun honetan parte har dezaten.

Iruñean, 2002ko azaroaren 5ean

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Andosillako Udalarekin negoziazioetan hasteko, kasino nagusia herritarrentzako zentro gisa zaharberritzeari begira

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Andosillako Udalarekin negoziazioetan hasteko, kasino nagusia herritarrentzako zentro gisa zaharberritzeari begira".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko azaroaren 11n egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko azaroaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztánnek, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Andosillako Kasino Nagusia zaharberritzeari buruzkoa, Osoko Bilkuran eztabaidatua izan dadin.

Zioen azalpena

Andosillako Kasino Nagusiaren eraikinak Lope del Val plaza izenekoan dagoen orube bat hartzen du, 227 metro karratu baino gehixeagoko azalera duena, bi solairu eta terrazaz osaturik, eta plaza horretako aldeetako bat eratzen du. Kokapen ezin hobea du herriaren erdigunean, baina gaur egun, herriak azken hogeita hamar urteetan izan duen zabalkundea dela medio, alde zaharraren erdigunean gelditu da, eta hura ez da dagoeneko Andosillako merkataritza eta administrazioaren bihotza.

Jatorria 20ko urteen hamarkadan edo 30ekoen hasieran du, Zentro Errepublikarra izateko sortua, ehunetik gora izan ziren bazkide fundatzaileak. Gure egunetara ailegatu den dokumentazioak hala erakusten du. Denboran zehar gureganaino ailegatu diren argazkien arabera pentsa dezakegu auzolanez eraiki zela, herritar askoren partaidetzarekin.

Eskura dagoen dokumentazioak dioenez, lokalak 1934 eta 1936an itxi ziren gobernadore militarrek aginduta. Aurrerago, epaitegian saldu ziren eta ondoren Falangek bereganatu zuen haien jabetza. Estatuko ondare bihurtu ziren 1978an, eta 1986an, berriz, Nafarroako Gobernuak eskuratu zuen, "Andosillako Gizarte Zentroa" izenarekin.

Bien bitartean, 1979az geroztik, Kasinoaren fundatzaile eta bazkideetatik artean bizirik zeudenak eta haien ondorengoak lanean hasi ziren higiezin berreskuratzeko helburuarekin, gizarte etxe gisa erabiltzeko. Haien jarduketak udalera eta Estatuko Ondarera igorritako eskabideetan gauzatu ziren. 1983an, Estatuak Nafarroan duen abokatuak udalari lagatzearen aldeko txostena eman zuen.

1986ko urrian, Nafarroako Gobernuak Kultura kontseilariak udalera jo zuen, higiezin lagatzea iradokitzeko, eta urte bereko azaroan alkateak, udalbatza ordezkatzuz, itzultzea eskatu zuen. 1989an, Kasinoaren bazkideek eta bazkideen ondorengoek lokalen jabetza eskatu zioten udalari eta honek eman egin zien, 1989ko urriaren 20an.

Egun horretatik 1999ko maiatzera bitarte, hau da, hamar urtez, higiezinaren jabetza erreala ez zen, dirudienez, eskualdatu behar zenean eta higiezin hondatzen joan zen, inork hartu gabe bere gain mantentze lanen erantzukizuna. 1999ko maiatzean Udalak lokalak aurri egoeran daudela deklaratu eta Nafarroako Gobernuak premiatu zuen eraits zezan.

Aurtengo ekainean udalbatza berria hasi zen lanean; ondarea berreskuratu eta suspertzeko asmoari helduta, ondoko erabakia hartu zuen 2002ko maiatzaren 30ean, zenbait jarduketa gauzatu ondotik:

Lehena. Herri honetako Lope del Val plazako 1 zenbakian kokaturik dagoen Kasino Nagusia eraikina gizarte etxe bihurtzea bultzatzea, "Tabuenca-Leache arquitectos" merkataritzako sozietateak erredaktaturiko azterlan ekonomikoan oinarriturik.

Bigarrena. Aurreko erabaki hori eta aipatutako agiria Nafarroako Gobernuari igortzea, bai eta Parlamentuko taldeei ere, Biltzarrean eztabaida dezaten, bidezkoa bada, gaur egun Foru Komuni-

tateko Gobernuarena den higiezin horren etorkizunaz.

Egoera horren aurrean eta, Parlamentuko talde honen iritziz, Andosillak mota honetako ekipamendua behar duenez kultur ekitaldiak eta bilkurak egiteko, eta eraikinaren kokalekua eta tamaina oso egokiak direnez Andosillari kultur jarduerak gauzatzeko lokalak emateko proiektuari begira, honako erabaki proposamen hau egiten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du Andosillako Udalarekin negoziazioak izan ditzan, herri horretako Kasino Nagusia edo "Zentroa" izenaz ezaguna den eraikina zaharberitu eta ondoren udalari lagatzeko, kulturarako eta bilkuretarako erabil dadin.

Iruñean, 2002ko azaroaren 8an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernu premiatzen da Foru Komunitateko ikur eta sinboloiei buruzko informazioa emateko eta haiek indartzeko, ezagutzera emateko eta erabiltzeko plan bat egin dezan

FORU ARAUBIDE BATZORDEAN IZAPIDATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernu premiatzen da Foru Komunitateko ikur eta sinboloiei buruzko informazioa emateko eta haiek indartzeko, ezagutzera emateko eta erabiltzeko plan bat

egin dezan". Mozioa Foru Araubide Batzordean izapidatzea agintzen da. Mozio hori 2002ko irailaren 30eko 92. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2002ko azaroaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

F saila:
GALDERAK

Galdera, beste autonomia erkidegoek behi-aziendaren entzefalopatia espongiformea dela-eta emandako laguntzekin izan duten strategiari buruzkoa*FORU PARLAMENTARI JOSÉ M^a AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko azaroaren 11n egindako bilkuran, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak beste autonomia erkidegoek behi-aziendaren entzefalopatia espongiformea dela-eta emandako laguntzekin izan duten strategiari buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegi-leak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko azaroaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak, 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu dio Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariari, idatziz erantzun dezan.

Nafarroako abeltzaintzak, Europako gainontzekoaren gisan, behi-aziendaren entzefalopatia

espongiformearen ondorioak jasan zituen eta nahitaezkoa gertatu zen Europa osoan sektorea laguntzeko neurri sorta abian paratzea.

Laguntza hauek iraupen ezberdina izan dute Estatuko autonomia erkidego bakoitzeko agintari eskudunek harturiko erabakien arabera. Nabarmena da EAEn 2002 urtean zehar ere iraun dutela, baina Nafarroan sektoreak ez du laguntza berdina ukan.

Lehenbizikoa. Ba al du zure departamentu honek Estatuko beste erkidegoek, aipatu dugun eritasuna dela kausa 2003an zehar sektorea laguntzeko adosturiko strategiaren berri?

Bigarrena. Ba al du departamentuak EAEn harturiko erabakien berri?

Hirugarrena. Departamentu honek kexaren bat aurkeztu al du Europar Batasunean gai honi dagokionez, EAEk 2002an zehar mantendu duen laguntzen araubidea dela eta?

Iruñean, 2002ko azaroaren 4an

Foru parlamentaria: José M.^a Aierdi Fernández de Barrena

Galdera, Europako Batasunaren erabakietan Nafarroak duen parte hartzeari buruzkoa

FORU PARLAMENTARI JOSÉ M^a AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko azaroaren 11n egindako bilkuran, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak Europako Batasunaren erabakietan Nafarroak duen parte hartzeari buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko azaroaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak, 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu dio Lehendakaritza eta Barne kontseilariari, idatziz erantzun dezan.

Hondarreko urte hauetan zehar, formazio politiko zenbaitek, baita geureak ere, gure erkidegoaren autogobernu gaitasuna areagotu beharra eskatu dugu.

Jakitun gara guztiok ere Europar Batasunean hartzen direla Nafarroako herritarrengan eragin zuzena duten gero eta erabaki gehiago. Horregatik Nafarroak, esparru askotan eskumen osoa duenez, nahiatezkoa du erabakiak hartzeko orduan Europar Batasunean ere zuzenean parte hartzea.

Lehenbizikoa. Zure gobernuaren ustetan, Nafarroak eskumen osoko gaitetan zuzenean hartu beharko luke parte Europar Batasuneko erabakiak hartzeko unean?

Bigarrena. Zer urrats ari zarete ematen parte hartzea gauzatu dadin?

Iruñean, 2002ko azaroaren 4an

Foru parlamentaria: José M.^a Aierdi Fernández de Barrena

Galdera, poliziaren arloko eskumenak hartzeari buruzkoa

FORU PARLAMENTARI JOSÉ M^a AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko azaroaren 11n egindako bilkuran, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak poliziaren arloko eskumenak hartzeari buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko azaroaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak, 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu dio Lehendakaritza eta Barne kontseilariari, idatziz erantzun dezan.

luan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu dio Lehendakaritza eta Barne kontseilariari, idatziz erantzun dezan.

Hondarreko urte hauetan zehar, formazio politiko zenbaitek, baita geureak ere, gure erkidegoaren autogobernu gaitasuna areagotu beharra eskatu dugu, besteak beste, poliziari dagokionez ere bai. Horiek horrela, hauxe jakin nahi dut:

Lehenbizikoa. Gobernuak aurikusia al du sarri Alderdi Popularrarekin negoziazioetan hastea, polizia alorreko eskuduntzak eskuratu ahal izateko?

Bigarrena. Hala baldin bada, zer epetan?

Iruñean, 2002ko azaroaren 4an

Foru parlamentaria: José M.^a Aierdi Fernández de Barrena

Galdera, trafikoaren arloko eskumenak hartzeari buruzkoa

FORU PARLAMENTARI JOSÉ M^a AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko azaroaren 11n egindako bilkuran, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak trafikoaren arloko eskumenak hartzeari buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko azaroaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak, 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu dio Lehendakaritza eta Barne kontseilariari, idatziz erantzun dezan.

Azken urte hauetan nahitaezko erreferentzia izan da trafikoaren gaineko eskumenak berreskuratu beharra. Ez dira gutxi zure Gobernuak bete ez dituen epeak. Horiek horrela, hauxe jakin nahi dut:

Lehenbizikoa. Trafikoaren gaineko eskumenak bere gain hartzeaz ari denean, zertaz ari da Gobernua, trafikoaren gaineko administrazio eskumenaz edo trafikoaren gaineko eskumen osoaz?

Bigarrena. Nafarroako Gobernua heldu den 2003 urtean barna trafikoaren gaineko eskumenak bere gain hartzeko egoeran dago?

Hirugarrena. Badu Nafarroak langile kopuru aski trafikoaren gaineko eskumenak bere gain hartzeko?

Laugarrena. Nafarroak zer langile kopuru beharko luke, geure baliabideak aintzat hartuz, trafikoaren gaineko eskumenak bere gain hartzeko?

Bosgarrena. Trafikoaren gaineko eskumenak bere gain osorik hartzearen ondorioz, langilekopurua nola areagotuko da, noizbait ere Guardia Zibiletik Foruzaingora aldatzeko aukera emanez?

Iruñean, 2002ko azaroaren 4an

Foru parlamentaria: José M.^a Aierdi Fernández de Barrena

Galdera, Nafarroako Gobernuak Madrilen duen ordezkariak egindako lanari buruzkoa

FORU PARLAMENTARI JOSÉ M^a AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko azaroaren 11n egindako bilkuran, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak Nafarroako Gobernuak Madrilen duen ordezkariak egindako lanari buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko azaroaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak, 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu dio Ekonomia eta Ogasun kontseilariari, idatziz erantzun dezan.

Gobernuak Ricardo de León izendatu zuen Nafarroako Gobernuko ordezkari Madrilen. Joan den urtean gure taldeak lehenbiziko lan urtean

egin zuenaren berri jakin nahi izan zuen, eta zure erantzunak ez zigun zalantzarik utzi ordura arteko eduki gabeziari zegokionez. Iragan den denbora kontuan harturik, honako galdera hau aurkeztu dugu:

Lehenbizikoa. Zer lan egin izan du Ricardo de León jaunak Nafarroako enbaxadore gisa 2002 urtean zehar?

Bigarrena. Zer jarduketa du abian oraintxe bertan?

Hirugarrena. Bulego horrek hilerok zer kostu izan du, bereiztuz batetik langileena, bai enbaxadorearena eta bai kontrataturiko langileena, eta bestetik funtzionamenduari dagokiona? Datua jakin nahi dugu, ahalik eta zehaztasun mailarik altuenarekin.

Laugarrena. Langileak kontratatzeke orduan, zein sistema erabili izan da?

Bosgarrena. Zer gastu izan dute Madrilgo enbaxadako egoitzaren egokitze lanek?

Iruñean, 2002ko azaroaren 4an.

Foru parlamentaria: José M.^a Aierdi Fernández de Barrena

Galdera, informazioaren gizartea sustatzeko planean sartutako jarduketak betetzeari buruzkoa

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak informazioaren gizartea sustatzeko planean sartutako jarduketak betetzeari buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko azaroaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduko 189. artikuluan ezarritakoaren babesean, galdera egin nahi du, Informazioaren gizartea sustatzeko planaren baitan, herritarrari Internet bidez ematen zaion arretan jarduketa zenbait bete ote diren jakiteko. Idatzizko erantzuna eskatzen dugu.

Galderaren testua:

Informazioaren gizartea sustatzeko planaren baitan, 19.7 epigrafean (Herritarrari Internet bidezko arreta emateko euskarria), Antolamendu eta

Informazio Sistemen Zuzendaritza Nagusira atxikitako jarduketei dagokienez:

- Foru administrazioaren atariaren berrantolaketa
- Nafarroako Gobernuko web gunearen kudeaketa eta mantentze lanak
- Sinadura digitala ezartzea
- CRM aplikazioa herritarrei eman beharreko arretarako aztertzea
- Bulego ingeniariatza

Jarduketa horietako bakoitzaren gainean, jakin nahi dugu:

- Betetze maila eta noiz bukatzea aurreikusitakoa den.

• Foru administrazioetik esleituriko langileen zenbatekoa, erabilitako lan-ordu kopurua eta lan-ordu horiek zer lanetan eman diren.

• Hirugarrenek lanik egin badute, egiten ari badira edo egingen badute, izan zuzenean esleitua, azpi-kontratazioa edo foru administrazioarekiko bestelako harreman zuzen edo zeharkakoa, aipatu erabilitako esleipen prozedura, esleipen-data, lana egiteko epearen bukatze-data, esleipen-hartzailea den pertsona fisiko edo juridikoa, erabili, aurrekontuan sartu edo esleitu diren funts publikoak, eta epeak ez betetzeagatik ezarritako zigor-baldintzak, kontratazioan halakorik jarri bada.

Iruñean, 2002ko azaroaren 5ean

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Galdera, modernizazio esparru berria abiarazteko laguntza teknikoa eta oinarrien garapena kontratatzeari buruzkoa

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak modernizazio esparru berria abiarazteko laguntza teknikoa eta oinarrien garapena kontratatzeari buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko azaroaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduko 189. artikuluan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuaren modernizazio esparru berriaren oinarriak garatzeko eta konponbideak aurkitzeko laguntza teknikoa kontratatzeari buruzkoa. Idatzizko erantzuna eskatzen dugu.

Galderen azalpena

Talde parlamentario honek jakin izan du Nafarroako Gobernuak "Trabajos Catastrales, S.A."

enpresaren bidez, lehiaketa bitzu deitu zituela, honakoak helburu:

• Nafarroako Gobernuaren modernizazio esparru berriaren oinarriak garatzeko laguntza teknikoa kontratatzea.

• Nafarroako Gobernuaren modernizazio esparru berriaren konponbideak garatzeko laguntza teknikoa kontratatzea.

Egitasmo hauetan, Nafarroako Gobernuak departamentu zenbaitetan garatu beharreko helburuei ekiten die, direla metodologikoak, direla hurrengo hauekin loturiko konponbide teknologikoak:

• Ikuskaritza Jarduketan Erregistroaren (RAI) eginkizun berriak.

• Errentaren gaineko Zergarako simulatzailearen garapena.

• PFEZ, BEZ eta Sozietateen gaineko zergaren kuboetan aldaketak.

• Nafarroako Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboa.

• Nafarroako Gobernuaren atari berria ezartzea

Nafarroako Gobernuak "Trabajos Catastrales, S.A." sozietatea pribatizatze asmoa duela eta,

talde parlamentario honek ondorengo galderak ditu, idatziz erantzuteko:

1. Bi lehiaketa horietan garaiz eta forman "Trabajos Catastrales, S.A." sozietateak onarturiko proposamenak egin zituzten pertsona juridiko edota fisikoen izenak

2. Bi lehiaketotako adjudikazio-hartzaileak eta kontratatu beharreko lanen zenbatekoa

3. Bi egitasmo hauen egungo betetze maila eta egitasmo bakoitzarendako foru administrazioak edota "Trabajos Catastrales, S.A." sozietateak esleituriko langile kopurua, lanaldia eta lanon nolokotasuna zehaztuz.

4. Kontratazio eta segimendu lanok Nafarroako Gobernuak "Trabajos Catastrales, S.A." sozietatearen bidez egitearen zioak.

5. Bi lehiaketa hauetako baldintza orriak onartu zirenerako, edo lehiaketok esleitu zirenerako,

bazuen Nafarroako Gobernuak "Trabajos Catastrales, S.A." elkartearen kapital sozialaren gehien-goia pribatizatzeko asmoa edo hipotesia? Hala balitz, Nafarroako Gobernuak edo "Trabajos Catastrales, S.A." sozietatea GTT eta IECISA sozietateekin negoziazioetan ari zen, hondar bi hauek "Trabajos Catastrales, S.A." enpresaren akziodun egite aldera?

6. Bi lehiaketotako baldintza ekonomiko-administratiboen orrian zehazten da, lanaren jabetza "Trabajos Catastrales, S.A."-rena izanen dela, eta ez Nafarroako Gobernuarena. Nafarroako Gobernuak asmoa al du, nahiz eta lanok sozietate publiko batek kontratatuak izan, eta kontuan izanik hartzailea foru administrazioa bera dela, arestian aipaturiko lanon jabetza intelektuala esku pribatuetan uzteko?

Iruñean, 2002ko azaroaren 5ean

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Galdera, Tracasaren balizko pribatizazioa justifikatzen duten arrazoiei buruzkoa

FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko azaroaren 11n egindako bilkuran, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak Tracasaren balizko pribatizazioa justifikatzen duten arrazoiei buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko azaroaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Askotariko Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Milagros Rubio andreak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauei erantzuteko eskatu du.

Zioen azalpena

Nafarroako Gobernuak Tracasa pribatizatzeko asmoa du. Enpresa honek zerbitzu publiko ona ematen du eta, foru sektore publikoko errentaga-

rienetakoa izanik, pribatizazioak ez du inolako justifikazio politiko, sozial eta ekonomikorik. Zer logika izaten ahal du, lan publiko garrantzitsua egiten badu, eta sarrera garbiak eskaintzen baditu, enpresa eraginkor eta efizientea saltzeak?

Espero dezagun logika horrek ez izatea zeri-kustekorik adiskidekeriarekin (FCC eta Corte Inglés dira balizko erosleetakoa).

Parlamentuaren bermerik gabe, eta ez motibazioan ezta salmenta prezioan ere justifikazio ekonomiko sendorik gabe halako pribatizazioak egiteak, berarekin dakar gauza publikoaren nondik-norakoa bideratu behar duen transparentzia eta borondate demokratikoa murriztea.

Arazo honen oinarrian dago UPN eta egungo Gobernuak burubelarri ari direla zerga beherapena eta pribatizazioak egin asmotan. Beherapena errentarik altuenen mesederako izan ohi da eta, pribatizazioak, Nafarroako politika soziala eta honen hobekuntza arriskuan paratzeaz gain, sektore publikoa ahalik eta gehiena murriztea du helburu.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi dugu:

1.- Zein helburu politiko, ekonomiko eta sozialak justifikatzen dute Tracasa enpresa publikoaren balizko salmenta?

2. Salmentarako zer jardunbide segituko da?

3. Nola eraginen dio prozesu honek langileen lan-egoerari?

Iruñean, 2002ko azaroaren 6an

Foru parlamentaria: Milagros Rubio Salvatierra

Galdera, aurrekontuei buruzko Foru Legearen aurreproiektua Gizarte Kontseilu Ekonomikoan tramitatzeari buruzkoa

FORU PARLAMENTARI FÉLIX JOSÉ PUYO REBOLLO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko azaroaren 11n egindako bilkuran, foru parlamentari Félix José Puyo Rebollo jaunak aurrekontuei buruzko Foru Legearen aurreproiektua Gizarte Kontseilu Ekonomikoan tramitatzeari buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak eskatu du Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordean ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko azaroaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Foru parlamentari independentista Félix José Puyo Rebollo jaunak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu dio Ekonomia eta Ogasun kontseilariari, batzordean ahoz erantzun dezan.

Indarreko araudiak ezartzen duenez, aurrekontu-ekitaldi bakoitzerako Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko foru legea izapidatu eta onesteko prozesuan beharrezkoa da epe eta ekintza batzuk betetzea, zeinen helburu nagusia baita aurrekontuen eztabaidak ahalik eta parte-hartze sozial handiena izatea eta eztabaida hori egin ahal izatea prozesu horretan parte hartu beharrezkotzat jotzen diren eragile sozial, ekonomiko eta politiko guztientzat onenak izanen diren baldintzetan.

Ildo horretatik, eta Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseilua arautzen duen apirilaren 4ko 8/1995 Foru Legeak 3. artikuluan xedatzen duenez, kontsulta-organo horri eskumena esleitzen zaio nahitaezko irizpena emateko "Nafarroako Aurrekontu Orokorreari buruzko Foru Lege aurre-

proiektuari buruz, eta horren onarpenean aldi baterako laguntzen dioten eta lehen aipatutako gaiei buruzkoak diren Foru Lege aurreproiektuei buruz, eta Nafarroako Kontu Orokorreari buruzko Foru Lege aurreproiektuei buruz." Halaber, Legea puntu horretan oso argia da, eta xedatzen du proiektu hori "Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentura baino lehen, behar den aldearekin, igorri beharko" duela Kontseilura.

Alabaina, Kontseilu horrek atzo hain zuzen ere aipaturiko kontuei buruz aritzeko bilera egin ondoren, Kontseiluan ordezkaturiko eragile gehienek, alde handiz, berriro ere kritikatu dute denborarik eta behar adinako informaziorik eza txosten bat behar bezala egiteari dagokionez. Areago: batzuk ez dira iritsi nahitaezkoa den iritzi hori ematera ere.

Zoritxarrez, ez da horrelakoak gertatzen diren lehen aldia; izan ere, urteak joan urteak etorri, kexa berberak egin ohi dira, eta urteak joan urteak etorri, Gobernuaren jardunak bera edo okerra izaten segitzen du. Eta begi-bistakoa da hori Kontseiluarekiko errespeturik eza dela, Legearen testuaren urrapena izateaz gain, Legeak xedatzen baitu Kontseiluak nahitaezko txostena eman behar duela. Argi dagoena da behar den materiala alde aurretik helarazten ez baldin bada Kontseilu horri Legeak ezarritakoa betetzea eragozten zaiola.

Bestalde, eta Parlamentuan aurrekontuei buruzko eztabaida egiteari dagokionez, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeak 35. artikuluan hauxe ezartzen du: "urte bakoitzeko azaroaren 1a baino lehen, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Aurrekontu Orokorreari Foru Lege proiektua igorriko du Nafarroako Parlamentura, bertan aztertu, zuzendu eta, kasua bada, onesteko".

Epea igaro ondoren, Gobernuak, aurten aurkeztuko duen aurrekontuaren asmo onei buruz iri-

tzi publikoari hitz egiten dagoeneko denbora dezente eman duen arren, oraindik ez du proiektu hori igorri, eta berriro ere urratu du Legeak ezarritakoa. Begi-bistakoa da ezen geroago, Parlamentuko bere taldearen bitartez, ahaleginak egingen dituela Parlamentuan aurrekontuari buruz egin beharreko eztabaida arrapaladan egin dadin, denbora-arazoak argudiatuz. Arazo horiek bere arduragabeziak beste ezerk ez ditu sortzen.

Parlamentari honek, nahiz eta jabetzen den ildo honetan Gobernuaren jarrera dela iruzur egitekoa eta onura politikoa bilatuz aurrekontuei buruzko eztabaida baldintzatzekoa, honako galde-
ra hauek egiten ditu:

1. Zergatik ez die bidaltzen Nafarroako Gobernuak Ekonomia eta Gizarte Kontseiluko kideei

behar den dokumentazio guztia, eta behar den garaian, kide horiek modua izan dezaten nahitaezko txostena, Legeak ezartzen duen bezalakoa, eman ahal izateko Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko foru lege aurreproiektuari eta horren onarpenean aldi baterako laguntzen dioten foru lege aurreproiektuei buruz?

2. Zein arrazoik bultzatu dute Nafarroako Gobernuak Legea urratzera? Izan ere 2003rako Nafarroako Aurrekontuei buruzko Foru Lege proiektua ez du azaroaren bata baino lehenago bidali Parlamentu honetara.

Iruñean, 2002ko urriaren 31n

Foru parlamentaria: Félix José Puyo Rebollo

G Saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Mahaiko Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuaren domina ematen zaio Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren testua negoziatzeko batzordeetan parte hartu zutenei

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko azaroaren 4an egindako bilkuran, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoak hogeitau urteko indarraldia bete zuen 2002ko abuztuaren 16an; denbora tarte horretan aldaketa instituzional eta politiko handia gertatu da Nafarroan, lege horren ezarpenak eta garapenak Foru Komunitatean eta bertako herritarren ongizatean eragin dituen ondorioak direla medio.

Nafarroari bere autogobernu sistema sendotzeko aukera eman dion eskumen-araubide zabalaz gain, Foru Hobetzeak araubide demokratiko parlamentarioa ezarri zuen, zeinaren funtsezko erakundeak –Nafarroako Parlamentuak edo Gorteeak–, legegintzarako ahalmenaz jantzirik, Nafarroako gizartearen eskariei erantzuna ematea xede zuten gai guzti-guztien arautzeari heldu baitio azken bi hamarkada hauetan; erakunde honek, halaber, agertoki baten ekarpena egin dio Nafarroako elkarbizitzari, gure erkidego politikoa osatzen duten ideia aniztasunari hitza eman dion eszenatokia alegia.

Demokrazian bizitzeak erabat asetzen du, gaur egun, gizaki garen aldetik erkidego batean bizitzeko dugun premia, eta Parlamentua da, berez, ideia guztiak adierazteko eta gure izateari duintasuna eransten dion pentsaera askatasuna osotara garatzeko modua eskaintzen duen erakunde nagusia.

Horrexegatik, Nafarroako herriaren ordezkari den erakunde honetatik etengabe eskertzen da Foru Hobetzearen legeak Nafarroako gizartearen elkarbizitzari egin zion ekarpena, bozketa unibertsalez hautatua den eta legegintza ahalmena duen parlamentu batean oinarrituriko sistema instituzionala ezarri baitzuen, biltzarra eztabaida poli-

tikoaren eta herritar guztien ordezkartzaren ardatz nagusia izanik.

Foru erakundeek efemeride baten ospakizun esparrutzat hartu dute 2002. urtea, 1982ko abuztuaren 16an indarra hartu baitzuen Foru Hobetzearen Legeak; hain zuzen ere, mendebaldeko demokrazia garatuen funtsezko printzipio eta egituretan oinarrituriko sistema instituzionala garatu eta ezartzearen ondorioz gure erkidegoan araubide demokratikoa berriki ezartzeko bidean mugarri izan den horrek.

Foru Hobetzearen Legeak berezitasun nabarmena aitortzen dio Nafarroari, batasun konstituzionalari begirunea gordez eta Nafarroako herriaren betiereko nahia -bere autonomia, bertako erakundeek gobernatua, ezagutua izan dakion-errespetatzeko borondatea adieraziz. Nafarroako Parlamentuak ere, erakundeek berezitasun horren inguruan egindako adierazpenekin bat eginik, lege-testua goretsi nahi du, garrantzitsua baita herritar librez osaturiko erkidego gisa dugun elkarbizitzarako; eta goretsi nahi du foru araubidea berrezarri eta hobetzeko itunean sinadura ezarri zutenei haien lana eskertzeko ekitaldi instituzional baten bitartez.

Herritarren eta haien ordezkari diren erakunde- en gehiengoaren borondateak espiritu komun baten defentsa aurkitu zuten nazioaren gobernuak eta Nafarroako Foru Diputazioak negoziazio batzordeetan parte hartzeko izendatu zituzten pertsonengan; Nafarroako foru araubidearen onarpenetik abiatu, hura izan zen eskumenak gaurkotu eta erakundeak demokratizatze bide baliagarria, foru araubidea babestu eta errespetatzen zuten Konstituzio baten esparruan.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak bere esker ona adierazi nahi die Estatuaren eta Nafarroaren arteko ituna sinatu zutenei, modu horretan jakinarazteko erakunde honek uste osoa

duela haiek egindako lanaren eskutik etorri dela Nafarroak historia osoan lortu duen garapen mailarik altuena.

Horrenbestez, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak erabaki du:

1. Nafarroako Parlamentuaren domina ematea Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren testua negoziatzeko batzordeetan parte hartu eta 1982ko martxoaren 8an ituna izenpetu zuten kide hauei:

– Negoziazio batzordeko kideak, Estatuaren ordezkari:

– Rafael Arias Salgado, Lurralde Administrazioako ministroa,

– Sebastián Martín Retortillo y Baquer, Administrazio Publikoko ministro ondokoa,

– Manuel Broseta Pont, Autonomia Erkidegotarako Estatu idazkaria,

– Francisco Javier Ansuátegui Gárate, Nafarroako gobernadore zibila,

– José Luis Gómez-Dégano y Ceballos-Zúñiga, Estatuarekiko Auzietako zuzendari nagusia,

– Francisco Javier Soto Carmona, Toki Administrazioako zuzendari nagusia,

– Juan Junquera González, Lurralde Administrazioako Ministerioko idazkari nagusi teknikoa,

– Luis Burgón Tinao, akten idazkaria.

– Negoziazio batzordeko kideak, Nafarroaren ordezkari:

– Juan Manuel Arza Muñuzuri, Foru Diputazio-ko lehendakaria,

– Jesús Malón Nicolao, foru diputatua,

– Ángel Lasunción Goñi, foru diputatua,

– Pedro Sánchez de Muniáin, foru diputatua,

– Javier Moscoso del Prado, Nafarroako diputatua Gorteetan,

– Jesús Aizpún Tuero, Nafarroako diputatua Gorteetan,

– Joaquín Gortari Unanua, akten idazkaria.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2002ko azaroaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia, Nafarroako Parlamentuari buruzko liburu instituzionala inprimatu eta koadernatzeko lanak adjudikatzekoa

Nafarroako administrazio publikoen kontratuei buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legearen 97.3 artikulua betez, adierazten da Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko azaroaren 4an hartutako Erabakiaren bidez, honako kontratu hau adjudikatu duela:

Kontratuaren xedea: Nafarroako Parlamentuari buruzko liburu instituzionala inprimatu eta koadernatzeko lanak kontratatzea.

Adjudikazio prozedura: lehiaketa publikoa.

Kontratuaren prezioa: 28.135 euro (BEZa barne).

Kontratuaren epea: materiala jaso ondoren, 27 egun.

Adjudikazio-hartzailea: Gráficas Lizarra, S.L.

Iruñean, 2002ko azaroaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués